



ATAUNGO UDALA

Bandoa A T A U N

2023KO UDAKO HAUR-ZAINTZAN HEZITZAILE IZATEKO LAN-DEIALDIA

Ataungo Udalak udan haur-zaintza zerbitzurako HEZITZAILEA kontratatu behar du, ekainaren 26tik uztailaren 21era lan egiteko.


Interesa dutenek izena eman behar dute udal-bulegoan edo udala@ataun.eus helbidean, eta **izena ematearekin batera curriculuma** aurkeztu beharko da: tituluak, diplomak eta bestelako egiaztagiriak (Sexu-delituen aurrekaririk ez duela adierazten duen agiria; Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatzen duen ziurtagiria). Nahitaezkoa izango da euskarazko C1 titulua edo baliokidea izatea, eta balioetsi egingo da Haur Hezkuntzako titulua izatea eta haur-zaintzan edo haur hezkuntzan lan egin izana. Izena emateko eta dokumentuak **aurkezteko epea apirilaren 17tik 28ra** izango da, biak barne (epez kanpo jasotako eskaerak eta agiriak ez dira onartuko). Baldintzak betetzen dituzten hautagaiei elkarrizketa egingo zaie.

2023KO HAUR-UDALEKU IRAKIETAN ZUZENDARI ETA BEGIRALE IZATEKO LAN-DEIALDIA

Ataungo Udalak haur-udalekuetako zuzendaria eta begiraleak kontratatu behar ditu, ekainaren 26tik uztailaren 21era lan egiteko.

Interesa dutenek izena eman behar dute udal-bulegoan edo udala@ataun.eus helbidean, eta **izena ematearekin batera curriculuma** aurkeztu beharko da: tituluak, diplomak eta bestelako egiaztagiriak (Sexu-delituen aurrekaririk ez duela adierazten duen agiria; Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatzen duen ziurtagiria). Nahitaezkoa izango da euskarazko C1 titulua edo baliokidea izatea, eta balioetsi egingo da zuzendari-titulua izatea, begirale-titulua izatea, hezkuntza-arloko ikasketak izatea eta udalekuetan edo gazteekin aritu izana. Izena emateko eta dokumentuak **aurkezteko epea apirilaren 17tik 28ra** izango da, biak barne (epez kanpo jasotako eskaerak eta agiriak ez dira onartuko). Baldintzak betetzen dituzten hautagaiei elkarrizketa egingo zaie.

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala

2023KO UDALEKUETAN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA

Ataungo Udalak 2023ko udalekuetan praktikak egiteko aukera eskaini nahi die herriko gazteei.

Interesa dutenek izena eman behar dute udal-bulegoan edo udala@ataun.eus helbidean, eta **izena ematearekin batera gurasoek edo tutoreek sinatutako baimena aurkeztu beharko dute. Epea apirilaren 17tik 28ra** izango da, biak barne (epeaz kanpo jasotako eskaerak eta agiriak ez dira onartuko).

ERROIPE INTERPRETAZIO-ZENTROA ZABALIK

Apirilaren 1ean (larunbata) zabalduko dugu Aia auzoari buruzko interpretazio-zentroa: auzoaren eta baserrien historia, toponimoak, lanbideak, ohiturak, elikadura, fauna, flora, pertsonaiak, ibilbideak eta abar egongo dira ikusgai eta entzungai. Leku txikia denez, lehenbizi auzotarrei erakutsiko zaie, eta igandetik aurrera edozeinek izango du ikusteko aukera ordutegi honetan: **ostegunetan, ostiraletan eta larunbatetan 10:00-14:00**, eta eskaripean edozein egunetan. Hitzordua hartzeko idatzi erroipe@ataun.eus helbidera edo deitu 943061963 telefono-zenbakira.

AURRERA DOAZ KAXIO BIDEAREN AZKEN ZATIA BERRITZEKO LANAK

Atxurrenetik Mandabietako zubiraino doan bide-zatia berritu eta egokitu dugu azken asteotan. Handik Kaxetara bitarteko tartea eta Atxurrenetik Iturbera doana nondik nora egin aztertzen ari gara, eta urtea bukatu baino lehen beste tarte bat egitea da asmoa.

SAN ISIDRO EGUNA SAN MARTIN AUZOAN

Maiatzaren 15ean (astelehena) izango da San Isidro eguna, eta ohiko egitaraua aurrera eramateko asmoa dugu: goizean azoka eta ondoren bazkaria. Laster zabalduko dugu egitarau osoa.

Ataunen, 2023ko martxoaren 30ean.

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala